

joten dabe nire ezpata ta beso-babeskiak. Burrukan diardut ikaragarri; zuk, ama, ikusiko ba'zendu zeure aulki orretatik, ikararen ikaraz izoztuko zintzakez. Batzuk iges doaz, beste batzuk zati eginda jausten dira. Zuk, bien bitartean, ba-dakit nik, usteko dozu zeure aulki ortan jarrita, bakar-bakarrik, zure semea illa dala. Ontan ni biurtzen naz, dana odoldua, ta diñotzut : "Ama, amaitu da burrukea". Zuk orduan, jarleku barrutik urten, zeure bular gaiñean estutu ta diraustazu mosukatzen nozula: "Onezkero, zer izango nintzakean, ene semeak zaindu ez ba'nindu?"

... Egunero jazoten dira onango gauzak. Zergaitik gerta ez bein onango zerbait? Liburuetako ipuin bat lez izango litzake. Nire anaiak esango leuke: "Baiña, al ete? Nik onen erkintxo uste nebana !" Eta erriko gizonak bein eta barriro: "Zorion andia izan zan, egiaz, umea bere amagaz ego-tea".

32

ATZENA

Ama, ni ba-noa, ordua dot-eta... Zeure umearen billa, goiz bakarreko illuntasun kardenean, zuk zeure besuok oge-gaiñez luzatzean, nik esango dautzut: "Umerik ez daukazu or ! ". , . Ama, ni ba-noa.

Aize bigun biurtuko naz, zu laztantzeko; zu baiñu artzera zoazanean, ni ur-balaka izango, zu mosukatuz iñoiz be aspertu barik. Ekaitz-jasa

gauetan, euriak orri artean murmur dagianean, zuk oetik entzungo dozu nire intziria, bai ta nire irribarreak tximistakin dirdir egin be zure leio edegian.

Zeure semea gogotan dozula, gau ordu luzeak lokartu barik emoten ba'dozuz, an izarretatik eresi joko dautzut nik: "Lo, ama, lo". Itargiaren izpian etorriko naiatzu : zure oera joan ixil-ixillik, eta, zu lo zagozala bular ondoan etzungo naiatzu. Gero ames biurtu ta zure betazal bitartetatik zear zeure atsedenezko ondarreraiño murgilduko naz, eta zuk izuturik itxartu ta albora begiratzean, illuntasunera iges egingo mitxelata antzo dardar-ikara leunez.

Puja'ren jai andian, auzokoaren umeak jolas-tu naita etxera etorriko yakuzanean, txirularen zarata oskidetsuan urturik ixuriko naiatzu ta egun. osoz zure biotzean intzirika jardun. Izekoak, esku-erakutsiak ekarriko ditu azokatik, eta itandu: "Eta umea, aizta, nun dozu ?" Ama, ta zuk esango dautsazu, gozo-gozo: "Neure begi-ninietan dago, neure gorputzean dago, neure ariman dago".

DEIEZ

Neskatxa joan zanean gau illun zan, eta lotan egozan danak. Orain be gau illun, ta dei dagitsot: "Itzul zaite, alaba, ene maitasun. Mundua lo dago